



# Bidebarrieta

etxebizitza

Aldacrak: Zapateruena  
Ahozkoa: Bidebarrieta / Sapáteruena



43° 10' 51"

2° 34' 34"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

1785. urtean eginiko baserri-  
etxe honen gainean dugun  
lehen aipua mende amaieran  
aurkitzen dugu, *Bidebarrie-  
ta* (1795, BAHP, A46/7. or.).  
XVIII. mende horretako Biz-  
kaiko azken su-errodan ere  
*Videbarrieta* (1796) aurkitzen  
dugu. Aldaketa gutxi jasan ditu  
izenak mendeetan zehar, *B* edo

*V* idaztean aurkitzen direlarik:  
*Bidebarrieta* (1825, PE/1825),  
*Videbarrieta* (1859, BUA, Nmcr)  
edo *Bidebarrieta* (1910, BUA,  
RU). Auzotarren artean, *Bide-  
barrieta* edota *Sapáteruena* dira  
ahozko formarik erabilienak,  
azken hori bertako maizterra-  
ren ogibidearekin erlazionatu-  
ta.

“... la casería rústica titulada  
*Videaurreta*... situada en  
jurisdicción de la Anteiglesia de  
*Berriz*,... y comprende treinta y  
tres estados equivalentes a ciento  
veinte y seis metros cuadrados  
de planta solar, y la que se  
compone de piso llano con taller  
y cuadras, de piso principal, con  
sala, tres cuartos y cocina, y el  
resto desban...”  
DJE, 2/ 108. or. (1867)

“... la casería titulada *Bideba-  
rrieta*, en jurisdicción de *Berriz*,  
ocupa treinta y un estados: el  
zaguan de en frente a la casa  
trece estados: el terreno abierto  
que situa al oeste de la casa mide  
trece estados y nueve pies...”  
DJE, 7/ 125. or. (1903)

## toponimia

Itxuraz oso gardena den izen honek bi esangura, antzeko baina bi, izan ditzake: “bide berria” edo “bide berriak”. Kontua da -eta atzizkiak bi esanahi dituela “lekua” eta “ugaritasuna”. Bilbon esaterako Bidebarrieta izen du kale batek.



*Bidebarrieta etxearen atzealdea / Berriz Iruditan*

XVIII. mende amaierako baserri-etxea, hurrengo mendean hedatu zen tankeran egina. Bi solairu eta ganbara ditu, isurki biko teilatuaren azpian, eta haren hegal zabalari eusteko, zurezko habeak. Etxeko atea erdian kokatua dauka, eta alboetan, leiho bana. Goiko pisuetan behekoekin lerrotatuta ikusiko ditugu beste bi leiho. Lehenengo solairukoek hegi molduratua dute, eta ganbarakoak txikiagoak dira. Harlan-

gaitza erabili zuten etxea jasotzeko, eta oso harlandu ona, berriz, kantaletan eta bao guztietan. Ateburuan inskripzio informatiboa dauka, eta horren gainean, baliteke beste nonbaitetik hartutako dobeladun dintela. Kristoren eta Mariaren anagramak dituen ezkutua erdian dela, inskripzioak honela dio: “AÑO DE 1785 / ESTA CASA DE BIDEBARIETA / FUNDO MANUEL DE AGUIRRE”.